

2007ko urtarrilaren 30ean, ASTEARTEA, arratsaldeko ZORTZI ETA ERDIETAN, Adunako Udaletxeko Batzar Aretoan egingo den Ohiko Batzarrera deitzen zaitugu, ondoren aipatzen diren gaiak aztertzeko.

EGUNEKO AZTERGAIAK.

1. - 2.006KO ABENDUAREN 12KO AKTAREN ONARPENA, BIDEZKOA BADA.
2. - ZENBAIT DEKRETUREN BERRI EMATEA.
3. - 2007KO AURREKONTU OROKORRAREN HASERAKO ONARPENA, BIDEZKOA BADA.
4. – LARDI AUZOKO DESJABETZAPEN PROZEDURAREN ONDASUN ETA ESKUBIDEEN ZERRENDARI EGINIKO ALEGAZIOEN ERANTZUNA, BEHIN BETIKO ONARPENA ETA URGENTZIAZKO OKUPAZIOAREN ESKAERA.
5. – LARDI AUZOKO ZOLAKETA OBREN ESLEIPENA GAUZATZEKO KONTRATAZIO PLEGUEN ONARPENA.
6. – 1.8 UNITATEKO DESJABETZAPEN PROZEDURAREN BARNEAN ERASANDAKO ESKUBIDE ETA ONDASUNEN ERLAZIOAREN HASERAKO ONARPENA.
7. – AGENDA 21 EKO ADUNAKO EKINTZA PLANA ONARTZEA
8. – EUSKARA IKASTEKO DIRU-LAGUNTZEN ARAUKETA
9. - ZENBAIT DIRULAGUNTZEN AZTERKETA.
10. - ZENBAIT FAKTUREN AZTERKETA
11. - ALKATEGOAREN INFORMAZIOA.
12. - GALDE ERANTZUNAK.

Aduna, 2007ko urtarrilak 25

ALKATEA

2.007KO urtarrilak 30

OHIKO PLENOA.

Bertaratuak:

ALKATEA

Arantza Aburuza Alkorta.

ZINEGOTZIAK:

Bertaratuak:

Mikel Sarasola Asteasuain.
Patxi Ormaetxea Otegi.
Jabier Zabala Zabala.
Iñaki Aristeta Gurrutxaga.
Antton Artola Iburguren

Bertaratu ez direnak:

Miren Aburuza Alkorta

IDAZKARIA:

Nerea Ubeda Etxarri.

Adunako Udaletxeko Batzar Aretoan, bi mila eta zazpiko urtarrilaren hogeitamarrean, hogeita bat orduak izanik, Adunako Udaleko Udalbatza bildu da, Alkate Anderearen Lehendakaritzapean eta goian aipatzen diren Zinegotzi Jaun/Andereen partaidetzaz.

Lehendakaritzaren aginduz Batzarra hasi ondoren, Idazkariak adierazi du berau burutu daitekeela legeak ezarritako quoruma bertan dagoelako.

LEHENENGO PUNTUA:

2.006KO ABENDUAREN 12KO AKTAREN ONARPENA, BIDEZKOA BADA.

Alkateak 2006ko abenduaren 12ko aktaren berri ematen du eta aurrean aipaturiko zinegotziek aho batez onartzen dute.

**BIGARREN PUNTUA:
ZENBAIT DEKRETUREN BERRI EMATEA.**

Alkateak azken Plenoa egin zenetik ondoren aipatzen diren Dekretuak eman dituela jakinarazten du:

1.- 2007ko urtarrilaren 9an Etxeberri baserriko karabanak kentzeko laguntza eskaera Ertzaintzari (213/2006 Alkatetza Ebazpena).

2.- TEJERIA ZABALA ANAIK eskatutako HIB 1.4 unitateko segregazio baimena onartzen da (214/2006 Alkatetza Ebazpena).

3.- ALDAPA AUTOMATISMOS, S.Lri iharduera baimena ematea onartzen da, E.J –k jarritako neurri zuzentzailean betetzeko baldintzarekin. (215/2006 Alkatetza Ebazpena).

4.- ROMEN S-L –K eskaturiko Jantoki bat jartzeko iharduera baimenaren tramitazioa hasteko erabakia hartzen da.(216/2006 Alkatetza Ebazpena).

5.- 17.145,22 € tako urteko estolderia zergaren errolda onartzen da (217/2006 Alkatetza Ebazpena).

6.- 2006ko 2. kreditu aldaketa onartzen da (218/2006).

7.- ARAGI BULEGOAK S.L ri H.I.B 1.4. unitateko B lursailean eraikina egiteko aurkeztutako exekuzio proiektua onartzen da (219/2006).

8.- ARAGI BULEGOAK S.L ri H.I.B 1.4. unitateko A lursailean eraikina egiteko aurkeztutako exekuzio proiektua onartzen da (220/2006)

9.- Ramiro Dos Santos jaunari bost eguneko epea ematea onartzen da Etxeberri baserriko lurretan dauden karabanetan dituen ondasunak ken ditzan. (1/2007).

10.- XABIER ITURRIOZ Jaunak Adunako parrokiako teilatua konpontzeko obra baimena eskaera onartzen da (2/2007).

11.- Javier Olaetxea Jaunak Baso ustiaketa gauzatzeko eskatutako herri bideetatik ibiltzeko baimena onartzen da (3/2007)

12.- Leandro Galatas jaunari jakinarazpena egiten zaio Udalak Zarautzen utzitako kasetaren kargu egin dadila (4/2007)

13.- Estolderiaren erroldaren akats zuzenketa, 127 € kantitatea gehituz (5/2007)

14.- 1.8 unitateko hiritartze proiektuaren behin betiko onarpena (6/2007)

15.- Maria Adelaida Lucas eta Joao Filipe Leal Sa Andere/jaunaren errolda inskribapenaren ofiziozko baja emateko hasiera (7/2007)

16.- Estolderia errolda 275,31€tako kantitateaz gutxitzeko erabakia (8/2007)

17.- H.I.B 1.5-6 unitateko 13. etxe-multzoa Jon Madinabeitia Garcia Jaunari esleitzea (9/2007)

HIRUGARREN PUNTUA:
2007KO AURREKONTU OROKORRAREN HASERAKO ONARPENA, BIDEZKOA BADA.

2.007ko SARREREN AURREKONTUA

SARREREN EGOERA ORRIA

XEHETASUNA PARTIDAKA

KODEA	KONTZEPTUA	HASIERAKOA EUROAK
2.0000.112.000.00.01	Landa-ondasunen gaineko Zerga	2.000
2.0000.112.000.00.02	Hiri-ondasunen gaineko Zerga	110.000
2.0000.113.000.00.01	Trakzio mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zerga	64.000
2.0000.114.000.00.01	Hiri-Lurren balio gehikuntzaren gaineko Zerga	12.000
2.0000.130.000.00.01	Enpresa-lhardueren gaineko Zerga	55.000
	I KAPITULOA GUZTIRA (ZUZENKO ZERGAK)	243.000
2.0000.282.000.00.01	Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko Zerga	50.000
	II KAPITULOA GUZTIRA (ZEHARKAKO ZERGAK)	50.000
2.0000.310.000.00.01	Zabor bilketa zerbitzua	20.000
2.0000.310.000.00.09	Ur hornidura zerbitzua	42.000
2.0000.310.000.00.10	Pilotalekua erabiltzeagatiko tasak	500
2.0000.311.000.00.01	Establezimendua irekiagariko tasak	5.000
2.0000.312.000.00.01	Hirigintza Lizentziak	3.000
2.0000.321.00.00.09	Lurpearen okupazioagatiko tasak	20.000
2.0000.391.000.00.01	Isunak	1.000
2.0000.399.000.00.01	Beste diru sarrerak	2.000
	III KAPITULOA GUZTIRA (TASAK ETA BESTELAKO	

SARRERAK)		93.500
2.0000.400.000.00.01	Itundu gabeko Zergetako partaidetza	400
2.0000.401.000.00.01	INEM-eko dirulaguntza: lan sustapena	10.000
2.0000.410.000.00.01	Eusko Jaurlaritza: IAEko konpentsazioa	21.500
2.0000.410.000.00.02	Eusko Jaurlaritza: Bake epaitegia	1.000
2.0000.410.000.00.03	Eusko Jaurlaritza: Erein Programa	17.350
2.0000.410.000.00.04	Eusko Jaurlaritza: Irisgarritasun Plana	7.728
2.0000.420.000.00.01	Itundutako Zergetako partaidetza	266.700
2.0000.420.000.00.02	Diputazioko subentzioa:kultur ekintzak	800
2.0000.420.000.00.03	Diputazioa: IAEko konpentsazioa	8.900
2.0000.420.000.00.04	Diputazioa:Arrazubitzabal eta Lepasoroaldeako aldaketa	9.000
2.0000.420.000.00.99	Bestelako transferentziak	0
IV KAPITULOA GUZTIRA (TRANSFERENTZIA ARRUNTAK)		343.378
2.0000.540.000.00.01	Hiri finken errentamendua	8.500
2.0000.541.000.00.01	Landa lur -sailen errentamentua	300
2.0000.560.000.00.01	Kreditu-Erakundeetako kontu korronteen interesak	200
V KAPITULOA GUZTIRA (ONDARE SARRERAK)		9.000
2.0000.600.000.00.02	Terrenoaren salmenta	360.000
VI KAP GUZTIRA-INBERTSIO ERREALEN BESTERENGA		360.000
2.0000.780.000.00.01	Herritarrak:gasas	20.000
VII KAPITULOA GUZTIRA (KAPITAL TRANSFERENTZIAK)		20.000
2.0000.933.000.00.01	Mailegua	226.222
IX KAPITULOA GUZTIRA (PASIBO Finantzieroak)		226.222
GUZTIRA		1.345.100

GASTUAK

1.0000.120.121.00.01	Funtzionarioen ordainketak	88.000
1.0000.130.121.00.01	Pertsonal laboral finkoa	46.000
1.0000.131.121.00.01	Pertsonal laboral ez finkoa	18.000
1.0000.160.121.00.01	Gizarte Segurantza	51.000
1.0000.160.121.00.04	Elkarkidetzako kuotak	4.000
1.0000.162.121.00.01	Heziketa	600
	Funtzionario eta korporatiboen	
1.0000.162.121.00.05	bizitza aseguruak	2.000
1.0000.163.121.00.05	Langilegoaren bizitza aseguruak	600
1.0000.164.413.00.05	Osasun laguntza	1.100
	I KAPITULOA (PERTSONAL GASTUAK)	211.300
	Bide publikoen konponketa eta	
1.0000.210.511.00.01	mantenimendua	2.000
	Mendien konponketa eta	
1.0000.210.533.00.01	mantenimendua	4.000
	Udal eraikuntzen konponketa eta	
1.0000.211.121.00.01	mantenimendua	8.000
	Ikastetxearen konponketa eta	
1.0000.211.422.00.01	mantenimendua	3.000
	Hilerriaren konponketa eta	
1.0000.211.443.00.01	mantenimendua	12.000
	Liburutegiaren konponketa eta	
1.0000.211.451.00.01	mantenimendua	300
	Frontoiaren konponketa eta	
1.0000.211.452.00.01	mantenimendua	10.000
	Lokalen konponketa eta	
1.0000.211.452.00.02	mantenimendua	2.000
	Argien konponketa eta	
1.0000.212.433.00.01	mantenimendua	4.200
	Makineria eta tresneriaren	
1.0000.212.533.00.01	konponketa eta mantenimendua	1.000
	Motoaren eta kotxearen	
1.0000.213.121.00.01	konponketa eta mantenimendua	1.500
	Informazio-prozesuetarako	
1.0000.215.121.00.01	equipamenduaren konponketa eta	500
1.0000.220.121.00.01	Bulego materiala	3.000
	Prentsa, aldizkari, liburu eta	
1.0000.220.121.00.02	bestelako argitalpenak	1.000
	Argiaren ordainketa:Udaletxea eta	
1.0000.221.121.00.01	lokalak	2.000
1.0000.221.121.00.03	Gasa	3.500
1.0000.221.121.00.04	Erregai eta karburanteak	1.800
1.0000.221.121.00.05	Aguazilaren erropak	300
1.0000.221.121.00.09	Garbiketarako materiala:Udaletxea	1.000
1.0000.221.422.00.01	Argiaren ordainketa: Ikastetxea	2.200

1.0000.221.422.00.09	Garbiketarako materiala:Ikastetxea Argiaren ordainketa:argiztapen	500
1.0000.221.433.00.01	publikoa	13.000
1.0000.221.441.00.01	Argiaren ordainketa:urak	6.200
1.0000.221.441.00.02	Ur hornidura	5.000
1.0000.221.452.00.01	Argiaren ordainketa: frontoia	1.000
1.0000.221.533.00.11	Tresnak eta erremientak	1.000
1.0000.222.121.00.01	Telefonoa:Udalekoa	2.500
1.0000.222.121.00.02	Postaren ordainketa	500
1.0000.222.121.00.04	Faxaren ordainketa	200
1.0000.222.121.00.05	Informatikoak:IZFE	12.000
1.0000.222.422.00.01	Telefonoa:ikastetxea Aseguru primak: eraikin eta	600
1.0000.224.121.00.01	lokalenak Moto eta kotxearen aseguru	6.000
1.0000.224.121.00.02	ordainketa	800
1.0000.226.121.00.02	Protokolo gastuak	1.000
1.0000.226.121.00.03	Publizitate eta propaganda	3.000
1.0000.226.121.00.04	Juridiko aholkularitza	22.000
1.0000.226.454.00.06	Iharduera sozio-kulturalak	18.000
1.0000.227.121.00.07	Hirigintz aholkularitza Entitatearen aldeko bilketa	12.000
1.0000.227.121.00.09	zerbitzuak	1.000
1.0000.227.121.00.98	Faxaren mantenimentua	300
1.0000.227.121.00.99	Fotokopioraren mantenimentua	1.300
1.0000.227.432.00.07	Azterketa eta lan teknikoak	12.000
1.0000.227.442.00.01	Zabor bilketa zerbitzua Kontenedoreen garbiketaren	17.000
1.0000.227.442.00.02	zerbitzua	3.500
1.0000.227.443.00.99	Hilerriko ustiapen eta kuadeaketa	1.400
1.0000.227.444.00.07	Ingurugiro saileko aholkularitza	3.000
1.0000.230.121.00.01	Pertsonalaren dietak	300
1.0000.231.121.00.01	Korporazio kideen dietak	8.000
	II KAPITULOA (ZERBITZU ETA ONDASUN ARRUNTEN EROSK)	216.400
1.0000.322.011.00.01	Finantza pasiboen interesen ordainketa	28.300
	III KAPITULOA (FINANTZA PASIBOEN INTERESAK)	28.300
1.0000.417.121.00.01	Artxibatzailearen kuota ordainketa	1.200
1.0000.417.452.00.01	Olaederra Polikiroldeari ordainketa	1.000
1.0000.419.422.00.01	Ikastetxeei laguntza Mankomunitate eta Kontsorzioei:	2.000
1.0000.421.313.00.01	Euskal Fondoa Mankomunitate eta	2.500
1.0000.421.313.00.02	Kontsorzioei:Aiztondo	39.000
1.0000.421.442.00.01	Mankomunitate eta Kontsorzioei:Tolosaldeko	14.200

	Mankomunitatea	
	Mankomunitate eta Kontsorzioei:	
1.0000.421.451.00.01	Aiurri	4.000
	Mankomunitate eta Kontsorzioei:	
1.0000.421.451.00.02	Loatzo	17.700
	Mankomunitate eta	
1.0000.421.455.00.01	Kontsorzioei:UEMA	3.600
	Mankomunitate eta	
1.0000.421.533.00.01	Kontsorzioei:Mendi Nekazaritza	2.300
	Mankomunitate eta	
1.0000.421.721.00.01	Kontsorzioei:Tolosaldea Garatzen	5.600
1.0000.480.451.00.01	Familiei	3.000
	Irabazizko xederik gabeko	
1.0000.481.452.00.01	erakundeei	4.000
	IV KAPITULOA	
	(TRANSFERENTZIA ARRUNTAK)	100.100
	Lardi auzoko urbanizazio lanen	
1.0000.601.511.00.01	ordainketa	200.000
	Poligonoetako mantenimentu lanen	
1.0000.601.511.00.02	ordainketa	10.000
1.0000.601.511.00.03	1.8 unitateko hiritartze proiektua	200.000
1.0000.609.121.00.01	Udaletxearen kargu zenbait obra	30.000
1.0000.601.511.00.04	Torre aldeko azpiegiturak	6.000
1.0000.622.452.00.01	Udalaren lokal baten egokitze lanak	6.000
1.0000.623.121.00.02	Igogailua	40.000
1.0000.680.431.00.01	Terrenoen erosketa	256.000
	VI KAPITULOA (INBERTSIO	
	ERREALAK)	748.000
	Gipuzkoako Ur Kontsorzioari	
1.0000.721.441.00.01	kanona	13.000
	VII KAPITULOA (KAPITAL	
	TRANSFERENTZIAK)	13.000
1.0000.933.011.00.01	Amortizazioaren ordainketa	28.000
	IX KAPITULOA (FINANTZA	
	PASIBOAK)	28.000
	GUZTIRA	1.345.100

LAUGARREN PUNTUA:

LARDI AUZOKO DESJABETZAPEN PROZEDURAREN ONDASUN ETA ESKUBIDEEN ZERRENDARI EGINIKO ALEGAZIOEN ERANTZUNA, BEHIN BETIKO ONARPENA ETA URGAEZIAZKO OKUPAZIOAREN ESKAERA.

Adunako Udalbatzak, 2007ko urtarrilaren 30eko osoko bilkuran erabaki zuen desjabetzeko legezko izapideei ekitea eta Lardi auzoko zolaketak egiteko derrigorrez desjabetu beharreko ondasun eta eskubideen zerrendari hasierako onespena ematea; izan ere, horretarako bidea ematen du 2007ko urtarrilaren 5ean behin betiko onartutako "Adunako Lardi auzoa zolatzeko proiektuak inplizituki dakarreneen herri onuragarritasun aitortenak.

Aipatutako zerrenda hori Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 2006ko irailaren 12an, 15 eguneko epean jendaurrean ikusgai jartzeko tramitea betez. Era berean, bidezko iragarkia egunkarian ere eman zen argitara.

Horrez gain, interesatu guztiei banan-banan erabaki horren berri eman zitzaien, beren eskubideen defentsarako bidezko alegazioak jartzeko aukera izan zezaten.

Eta hala, 2007eko urtarrilaren 25an, Jesus Maria Gorostidi Astigarraga jaunak alegazioen idatzi bat aurkeztu zuen Udaletxean, honako hau adieraziz:

- Lardi auzoa Zolatzeko Proiektua jendaurrean ikusgai egondako denboran aurkeztutako alegazioan adierazitakoari eusten diola eta Zolatzeko Proiektua ez dela arrazoi nahikoa desjabetzapean espedienteari ekiteko.

Idatzi horretan ez dago desjabetzapearen eraginpeko ondasun eta eskubideen zerrendaren aurkako alegaziorik, ezta zerrenda aldatzeko eskaerarik ere.

Hala ere, Gorostidi jaunak egindako alegazioei erantzun egin behar zaie.

Eta hori horrela, esan behar da, nahitaezko desjabetzapea arautzen duen erregelamenduko 17-1 artikuluan ezarritakoaren arabera, interesdunek alegazioak jar ditzaketela ondasunak okupatzearen edo erabiltzearen bidezkoatasunari buruz edota ondasun horien egoera legal edo materialei buruz.

Interesduna ez dago ados bere lursailak okupatzearekin, bere iritziz ez baita bidezkoa horretarako hiritartze obren proiektu arruntean oinarritzea. Baina hori ez da onargarria, izan ere Tokiko Erregimen gaietako Xedapenen Testu Bategineko 94. artikulua ezarritakoari jarraituz, obra arruntetarako proiektuek inplizituki baitakarte herri onuragarritasuna eta okupatzeko premia. Hauxe dio aipatutako artikulua:

"Tokiko obra eta zerbitzuen plangintzetan jasotako obrek, lankidetzarako probintzia mailako planek barne, beren aplikazio esparruko lursail eta eraikinen herri onuragarritasunaren aitortzea eta okupatu beharra ekarriko dute berarekin, nahitaezko desjabetzearen ondorioetarako".

Gauza bera adierazten du Nahitaezko Desjabetze legearen 10. artikulua ere. Honakoa dio:

“Higiezinak desjabetzeari dagokionez, herri onuragarritasuna inplizituzat jotzen da Estatuko, Probintziako, Udaleko, obra eta zerbitzuen plangintza guztietan”.

Horrela bada, Obren Proiektu Arrunta onartzeak berarekin dakar Udalaren desjabetzeko gaitasuna; hortaz, Udalak ahalmen osoa du aipatutako Proiektuan aurreikusitako obrek erasandako lursailen desjabetze espedienteari ekiteko.

Gainerakoan, ondasunen ezaugarriei edo gorabeherei dagokienez, aurkeztutako alegazioan ez da eztabaidatu desjabetzapenaren eraginpeko ondasun eta eskubideen zerrendarekin lotutako alderdirik. Beraz, hasierako onespena eman zaion ondasunen zerrendaren aurkako desadostasunik ez dagoenez, ez dago aipatu zerrenda aldatzeko arrazoirik.

Kasu honetan aplikagarria da Nahitaezko Desjabetzapen Legearen 21. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoa.

Nahitaezko Desjabetzapen Legeko 52. artikulua aurreikusten duenari jarraituz, Organo eskudunari – Eusko Jaurlaritzako Hirigintza eta Etxebizitza Sailari, alegia– desjabetu beharreko ondasun eta eskubideen premiazko okupazioa eskatzeko aukera aurreikusi da, erantsitako memorian ikus daitekeen moduan kasu honetan benetakoa baita ondasun horiek okupatzeko premia.

Adierazitako guztia aintzat harturik,

ERABAKI DA

Lehenik.- Ezestea Jesus M^a Gorostidi jaunak, desjabetzapenaren eraginpeko ondasun eta eskubideen zerrendaren hasierako onespeneren aurka arauzko epearen barruan jarritako alegazioak.

Bigarren.- Erabaki honen eranskin gisa doan ondasun eta eskubideen zerrenda behin betiko onestea eta, ondorioz, ondasun eta eskubide horiek okupatzeko premia aitortzea.

Hirugarren.- Eusko Jaurlaritzako Hirigintza eta Etxebizitza Sailari, Nahitaezko Desjabetzapen Legeko 52. artikulua aurreikusten duen premiazko okupazioa onar dezan eskatzea.

Laugarren.- Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta hedapen handiko egunkarietako batean argitaratzea; eta interesdun guztiei, banan-banan, erabaki honen berri ematea.

ERANSKINA: Desjabetu beharreko ondasun eta eskubideen zerrenda

- **Orube zenbakia: 1**
- **Jabea:** Jesus Mari Gorostidi Astigarraga jauna
- **Helbidea:** Lardi Auzoa, Lardi etxea, 20150 ADUNA
- **Deskabetzapena:** 78m²
- **Erregistro Deskribapena:** : Elbarrena auzoko 38. zenbakidun Larrerdi baserriko hegoaldeko lehenengo zatiko jabetza. Hiru area eta hogeita hamar zentia area atalaurre dituena, iparraldean, bigarren loteko etxe bereko atalaurrearekin eta bide publiko nahiz Ballestain jabetzarekin mugatzen duena: ekialde eta mendebaldean bide publikoekin; eta hegoaldean, banatutako lursailarekin.
- **Desjabetu beharreko lursailaren deskribapena:** Lursaileko bi zati, bata, orubeko ekialdeko mugan dagoen 13m²takoa, bestea, orubeko mendebaldeko mugan dagoen 65m²takoa; hau guztia desjabetzapen proiektua eta obra proiektuan jasotzen den partzelarioa kontutan izanda, bien batuketa 78m² takoa delarik.

- **Izaera:** Landalurra

- **Erregistro Inskripzioa:** Adunako 12. liburua, 1236 tomoa, 1orria; 504 orubea, 1. inskribapena.

BOSTGARREN PUNTUA:

LARDI AUZOKO ZOLAKETA OBREN ESLEIPEN AGAUZATZEKO KONTRATAZIO PLEGUEN ONARPENA.

Adunako Lardi Auzoko Zolaketa obrak **PROZEDURA IREKIAZ** esleitzeko **LEHIAKETA** arautuko duten Baldintza Administratibo Partikularren orria AHOBATEZ ONARTZEN DU Udalbatzak:

SEIGARREN PUNTUA:

1.8 UNITATEKO DESJABETZAPEN PROZEDURAREN BARNEAN ERASANDAKO ESKUBIDE ETA ONDASUNEN ERLAZIOAREN HASERAKO ONARPENA.

Adunako Udalak 2007ko urtarrilaren 16an, Alkatetza dekretu bidez, Adunako 1.8 unitateko hiritartze proiektua behin betiko onartua izan zen. Proiektua gauzatzeko okupatu beharreko lursailak eskuratzeko, Udalbatzak, aho-batez, lursail horien jabe den Leandro Galatas Jaunarekin harremanetan jartzea erabakitzen du, desjabetzapen prozedura bat hasi aurretik akordio batera iristeko helburuarekin.

ZAZPIGARREN PUNTUA:
AGENDA 21 EKO ADUNAKO EKINTZA PLANA ONARTZEA

Diagnostikoa aztertu ondoren, Agenda 21eko prozesuaren barruan Adunako iraunkortasunaren aldeko ekintza plana zehaztu behar dela eta, udalbatzan aho batez mahaiaren gainean uzten du gaia, hurrengo bilkuran aztertua izan dadin.

ZORTZIGARREN PUNTUA:
EUSKARA IKASTEKO DIRU LAGUNTZEN ARAUKETA.

Adunako Udalbatzak, aho-batez, euskara ikasten edo alfabetatzen ari diren adunarrei emango zaizkien diru-laguntzak arautzen dituen ordenantza onartzen du.

BEDERATZIGARREN PUNTUA:
ZENBAIT DIRULAGUNTZEN AZTERKETA.

1.- Txolarre irratia garatu, sendotu eta indartzeko, Udalbatzak, aho-batez, 368 eurotako diru-laguntza onartzen du.

HAMARGARREN PUNTUA:
ZENBAIT FAKTUREN AZTERKETA.

1.-Frontoian nylonezko itxitura bat jartzeko lanak egiteagatik, Udalbatzak, aho-batez 5.651,52 eurotako faktura onartzen du.

Beste Aztergairik gabe, hogeita bi ordu eta berrogeita bost minutu direnean, Batzarra amaitu da, eta honetaz guztiaz nik, Idazkariak, fede eta kontu ematen dut.

